

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Izurtzako Udala**

Erabilera anitzeko lokalaren erabilera eta funtzionamendua arautzen duen Ordenantzaren behin betiko onarpena.

Erabilera anitzeko lokalaren erabilera eta funtzionamendua arautzen duen hasierako onarpena eman dio Udalbatza Osoak, 2019ko urriaren 18an egindako bilkuran. Hasierako onarpena ematen duten erabaki hauek jendaurrean jarri dira 30 egun baliodunetan Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin-betiko onartutzat ematen da, eta Bizkaiko Aldizkari ofizialean eduki osoa argitaratzen da.

Izurtzan, 2019ko abenduaren 9an. —Alkatea, Eva María Muñoz Irasuegui

**ARAUTEGIA****IZURTZAKO ERABILERA ANITZEKO LOKALAREN ERABILERA
ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA****I. SARRERA****1. artikulua**

Erabilera anitzeko lokala hainbat ekintza egiteko erabili daiteke.

Erabilera anitzeko lokalaren helburua herritarren aisialdia ahalik eta hoberen betetzea da. Era berean, instalazio hauek gizarte integratzailea lortzea nahi dute, egoera ekonomiko eta sozial guztientzako eskuragarri izanik.

Udalak herritar guztientzako jarduerak antolatuko ditu dagoen eskariaren arabera, erabiltzaile guztientzat eskura egongo direlarik.

Araudi honen helburua, Erabilera anitzeko lokalaren erabiltzaileen betebeharrak eta eskubideak arautzea da, Erregimen Lokala arautzen duen 7/1985 legeko 23.2 eta 85 xedatzen duten bezala.

II. ERABILTZAILEAK**2. artikulua**

Erabiltzaileak dira, lokala erabiltzeko eskubidea duten pertsona juridiko eta fisiko oro. Lokala ezin izango da erabili irabazteko asmoa duten jarduerak estaltzeko.

Lokala alokatzen duen erreserbaren arduradunak adin nagusikoa izan beharko du.

Izurtzan errolatuta daudenak edota 5 urtetan zehar egon direnak eta bertako elkar-teak lehentasuna izango dute.

Ordea, Izurtzako udalak antolatutako jardueren burutzeak lehentasuna izango du gainontzeko erabiltzaileengan.

3. artikulua

Erabiltzaile guztiek honako eskubideak izango dituzte:

- Udalak eskaintzen dituen ikastaro, zerbitzu eta bestelako ekintzetan parte hartzea, bakoitzaren arautegiaren arabera.
- Instalazioen erabilera erreserbatzekoa, betiere indarrean dagoen prozeduraren eta arautegiaren arabera.
- Instalazioen funtzionamenduari buruzko kexa edota iradokizunak egiteko. Hauek, idatziz zuzendu beharko dizkio Alkateari, helburu horretarako udalean dagoen orria beteta.
- Arautegi honen ale bat eskatu eta jasotzeko.
- Udalean erreklamazioak egin ahal izateko eskubidea.
- Indarrean dauden legeek eta Arautegi honek ezarritako gainerako eskubideak.

4. artikulua

Erabiltzaile guztiek honako betebeharrak izango dituzte:

- Instalazioen Arautegi honetan ezarritako betebeharren arabera, eta Udalak erabilerari buruz zehaztutakoak errespetuz erabiltzeko.
- Instalazioak eta ekipamendua behar bezala erabiltzeko. Arduragabekeriagatik edo erabilera txarragatik sortutako kalteak erabiltzailearen erantzukizuna izango dira.
- Instalazioetako funtzionamenduan arazoren bat, zerbait apurtu edo gabeziaren bat baldin badago edota ordenantzak araututakoa beteko ez balitz, bertako langileei edo udalean jakinaraztea.
- Beste erabiltzaileen lehentasunezko eskubideak errespetatzea, batez ere orduak aldeztu aurretik erreserbatuta daudenean.



- Instalazioetara sartzeko orduan arduradunek hala eskatuz gero, norbere burua identifikatzea legeak onartzen duen edozein modutan.
- Debekatuta dago instalazioetara animaliak sartzea, beti ere animalia hauek laguntzarako edo jarduera espezifiko baterako ez badira.
- Instalazio barruan erretzea eta jatea debekatuta dago, Udalak aurreikusi eta baimendutako kasu berezietan izan ezik.
- Ezarritako arauen bate ez betetzeak arau-haustea sortu eta zigorra izango du.
- Ezarritako kuotak sasoiz ordaintzea.
- Behar guzti hauek bisitari edo ikusle gisa instalazioetara sartzen direnek ere betebeharrak dituzte.
- Erreserba aurretik eginda izan eta joateko asmorik ez badu, erabiltzaileak udalera ohartarazteko betebeharrak ditu, beste pertsona batzuk nahi izanez gero erabili ahal dezaten.
- Erabiltzailearen betebeharrak da hurrengoarentzat era egokian lagatzea lokala.
- Indarrean dauden legeak eta Arautegi honek aurreikusten dituzten gainerako betebeharrak guztiak.

III. INSTALAZIOETARAKO SARRERA ETA ERABILERARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

5. artikulua

Pertsonak, elkarteak eta bestelako erakunde guztiak dute instalazioak erabiltzeko eskubidea, betiere Arautegi hau betetzen duten heinean.

Lokala erabiltzeko eskaerak liburutegiak daukan ordutegian egin beharko dira.

Eskaeretan honako datu hauek agertu beharko dira:

- Elkartearen, pertsonaren edota bestelako erakundearen izena.
- Afiliazio zenbakia.
- Helbidea.
- Telefonoa.
- Arduradunaren datuak.
- Egiteko den ekintzaren azalpena.
- Aurreikusita dagoen erabiltzaile kopurua.
- Lokalaren erabileraren ordutegia.
- Interesgarria izan daitekeen beste edozer.

Erreserba egindakoa, libre dauden orduak direla eta dagokien tasa ordaindu ondoren, lokala erabiltzeko eskubidea izango da.

6. artikulua

Abonatuaren giltza pertsonala eta transferiezina da. Giltzaren titularrak ez den beste norbaitek erabiltzen badu, kendu egingo zaio. Giltza galdu, lapurtu edo hondatuz gero, beste bat egingo da, 5 euroko tasa ordaindu ostean.

Instalazioen segurtasun neurrien artean itxitura elektronikoa dago, eta emandako giltz pertsonalizatuarekin zabalduko da. Zure datu pertsonalak zure giltzarekin lotuta egongo dira. Ondorioz, erabiltzailea identifikatuta geratuko da ate bat irekitzen duen bakoitzean.

7. artikulua

Ondoko baldintzak errespetatuz erabiliko dira instalazioak:

- Instalazioak ordutegi barruan erabiliko dira.
- Kasu bakoitzeko programazioaren arabera erabiliko dira.
- Kasu zehatzetan, Udalak adierazitakoari jarraituz erabiliko dira.

**8. artikulua**

Erabiltzaileek urteko egun guztietan goizeko 8:00retatik gaueko 22:00etara lokalera sartu ahal izango dute, ordutegi horretatik kanpoko erabilerarako udalak baimendutako kasu puntaletan izan ezik.

Udalak hurrengo atalean agertzen diren elkarteengan ikastaroen antolakuntza utzi ahal du horretarako hitzarmena sinatu ondoren.

9. artikulua

Elkarteez ekitaldi desberdinak egiteko udal eraikuntzak erabiltzeko aukera izango dute.

Elkarteko arduraduna identifikatuko da eta berak izango du lokalaren erabileraren erantzukizuna.

Udalak elkarteengan ikastaroen antolakuntza utzi ahal du horretarako hitzarmena sinatu ondoren.

Lokala erabiltzeko eskaerak liburutegiak daukan ordutegian egin beharko dira.

Eskaeretan honako datu hauek agertu beharko dira:

- Elkartearen izena.
- Afiliazio zenbakia.
- Helbidea.
- Telefonoa.
- Arduraduna.
- Egiteko den ekintzaren azalpena.
- Aurreikusita dagoen erabiltzaile kopurua.
- Lokalaren erabileraren ordutegia.
- Interesgarria izan daitekeen beste edozer.

Erreserba egindakoa, libre dauden orduka direla eta dagokien tasa ordaindu ondoren, lokala erabiltzeko eskubidea izango da.

Iraupen luzeko erreserbak, aldez aurretik hitzartuta, 6 hilabetero egiaztatu ahal izango dira, lokalaren erabilera hobetzeko.

IV. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**10. artikulua**

Erabiltzaileek Ordenantza honetan batzen diren betebeharrak errespetatu beharko dituzte. Arauak bete ezean, jarraian azaltzen diren zigorrez gain, isuna ere izango dute.

11. artikulua

Arau-hausteak arinak edo larriak izango dira, ondoren adierazten diren bezala:

a) Arau-hauste larriak:

- Ebaztea, lapurretan egitea edo instalazio, ekipamendu edo erabiltzaileen ondasunak edo gauzak alperrik galtzea.
- Instalazio barruan istiluak, errietak eragitea edo hauetan parte hartzea.
- Instalazioetan eta zerbitzuen funtzionamenduan ezarritako irizpideei behin baino gehiagotan entzungor egitea.
- Arau-hauste arin beragatik birritan baino gehiagotan harrapatzea.
- Edozein pertsonaganako eraso sexista edota homofoboak burutzea.
- Lokala seihilerako erabiltzeko hitzarmenak sinatu diren elkarteetan kasuan, %25 baino gehiago ez bada erabiltzen, arau-hauste arina bezala hartuko da.



- b) Arau-hauste arinak:
- Instalazioetan alkoholdun edariak, tabakoa edo debekatuak dauden produktuak kontsumitzea.
 - Edozein abere sartzeta.
 - Instalazio bakoitzeko erabilera arauak behin baino gehiagotan haustea.
 - Janaria, latak, beirazko ontziak, eta abar sartzeta.
 - Aurkako sexua duten pertsonen gunetan miatzea.
 - Lokalaren erreserbaren erabilera ez egitea justifikatu gabe.
 - Instalazioetan txistua botatzea, zikintzea edo behar den moduan ez erabiltzea.
 - Ordenantza honetan ezarritako gainerako debeku, muga edo betebeharrak ez betetzea.

12. artikulua

- a) Arau-hauste larriak direnean, hurrengo zigorrak jarri ahal izango dira:
- Behin betiko kaleratuko da eta dituen eskubideak zein ordaindutako kuota galdu egingo ditu, sartzeko aukera galduz.
 - Behin-behineko kaleratzeak, gehienez 6 hilabete iraungo ditu. Isunak irauten duen bitartean eskubide guztiak galduko ditu, bai bazkide bai erabiltzaile gisa.
 - Arau-hauste larri bi egiten dituen, instalazioetan kalterik sortzen badu zigorrarekin batera kaltea ordaindu dezan eskatuko zaio.
 - Arau-hausteez eta zigor larriek 4 urteko preskripzioa dute.
- b) Arau hauste arinak direnean, hurrengo zigorrak jarri ahal izango dira:
- Gehienez 15 egunetarako kalera bidaltzea eta epe horretarako giltza elektronikoa kentzea.
 - Egindako arau-hausteen ondorioz instalazioetan kalterik egingo balitz, kaltea ordaindu egingo da eta kaltearen zenbateko ordaintzen ez duenari premiamentu bidez eskatuko zaio.
 - Hiru hilabetetan hiru arau-hauste arin ezberdin eginez gero, arau-hauste hauek larritzat hartuko dira.
 - Isuna eragin duten ekintzen larritasun handiago edo txikiagoaren arabera, isunaren zenbatekoa 6,00 euro eta 300,00 euro artean egongo da.

Arau-hausteez eta Zigor arinek hiru hilabeteko preskripzio epea dute.

